

IKASLEEN TXOKOA 84. ZENBAKIA

# Lanbide heziketa

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII

**Egileak:**

Maixabel Agirre Ruiz, Ibone Alonso Varela, Mainer Anduaga Larrea, Paula Aranbarri Froiz, Jon Azcona Ibazeta, Aitziber Cuevas Garro, Raquel De Oliveira Valente, Leire Furundarena Azqueta, Blanca Jiménez Lamsfus, Eva Lamsfus Irigoyen, Iratxe Mateos Zeberio, Ane Salegui Sarasua, Iratxe Silva Velasco, Anne Torres Barrio, Naia Tovar Escudero.





Asdf

# Pluralismotik, tolerantziatik eta elkarlanetik abiatuz sortatutako aisialdi eta elkar ezagutzeko espazioa

Hernani Lanbide Heziketako Ikastetxean, Animazio Soziokulturala eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak astero elkartzeko dira. Topaketa hauetan, alderdi sozio hezitzailearen esparruko aisialdi jarduerak gauzatzen dira. Bilera hauetan, honako edukiak lantzen dira, horien artean, giza trebetasunak, talde identitatea eta kohesioa, hizkuntza, kulturartekotasuna, tolerantzia, errespetua eta aniztasuna jolasen bidez lantzen dira.

## KULTURARTEKOTASUNEAN MURGILDUZ

8/2013 Lege Organikoaren bidez LOMCE deritzona, Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak (OLH) sortu ziren premia bereziak dituzten ikasleek hezkuntza-sisteman jarrai dezaten laguntzeko eta garapen pertsonala zein profesionalerako aukera gehiago eskaintzeko helburuarekin.

Programa hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua eskuratu ez duten 16-18 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago. Kolektibo hau gizarteratze zailtasunak, eskola porrota zein eskuluzio soziala jasan dezaketen gazteak dira.

Animazio soziokulturala, heziketa ez formalaren barruan aurkitzen diren ekintzak eta ekimenak dira. Nahiz eta OLH, sistema formalean egon, zeharka

hainbat kompetentzia lantzeko aukera dago, edukiak bezain garrantzitsuak izan daitezkeenak.

Oinarrizko lanbide heziketako ikasleen profila, 16-18 bitarteko gazteak dira, atzeritar zein tokikoak eta orokorrean honako jardueretan parte hartzeko errezeloa izaten ohi dute. Bestalde, Animazio Soziokulturaleko ikasleak, 19-23 bitarteko ikasleak dira, beste errealitate batetik datozenak eta arlo honetan sinesten dutenak.

Jarduerak diseinatzeko momentuan animatzaileek OLH-ko ikasleen interesak, eskaerak eta beharretatik abiatu beharko dira. Hori dela eta, esku hartze honetan parte hartuko dituzten animatzaileak ezaugarri guzti hauek kontuan izan beharko dituzte, egoera horiei aurre egiteko baita momentuan egokitzapenak egiteko ere. Jarrerari

dagokionez, errealitate eta ingurune zailetatik datozen gazteak dira, beraz, animatzaileek trebetasun sozialak egoki erabili beharko dituzte parte hartzea beraian pizteko asmoarekin, ikasle hauek protagonistak izatera bultzatuz.

Erreportaje honen bidez, egitasmo honen berri emateko bidea da eta guretzako beraien inpresioak ezagutzeko baliabide bat ere. Hona hemen, OLH-ko bi ikasleei egindako elkarrizketa:

Borobilduz, ekimen honen bitartez, curriculumeko zeharkako kompetentziak eta edukiak lantzen dira, modu dinamiko eta dibertigarri baten. Etorkizunari begira, gazte guztiontzat lanbide bat lortzea garrantzitsua izango da, baina are gehiago, lan munduan behar diren jarrera eta giza trebetasunak garatzen laguntzea, eta zentzu horretan laguntzen saiakera burutzen ari da.

## ERABILITAKO BALIABIDEAK:

- GALDETEGIA: OLHko ikasleei zuzendua, transkripzioa eta itzulpena.
- PROGRAMAZIOA: oinarriko lanbide heziketako taldeekin egiten ditugun animazio-aisialdi jarduerak eta harremanak.

## ELKARRIZKETA 1

### 1. Zenbat urte daukazu eta nondik zatoz?

19 urte ditut eta Marokotik nator.

### 2. Nolako da zure bizitza? Zer egiten duzu egunean zehar?

Ba... jendeak egiten duena jajaja. Futbolera jolastu, lagunekin egon...

### 3. Zure etorkizunean zer espero duzu?

Zer espero dudana? Ba... ez dakit, mekanizazioarekin zer ikusia duen zerbaitetan lan egitea. Agian... ikasi.

### 4. Zer moduz zure taldekideekin?

Ondo, giro ona dago gure artean.

### 5. AST-koek egiten dituzten jarduerekin zer moduz?

Gelakideek dituzten gogoen arabera. Niri berdin zait, egin behar badut, egiten dut.

### 6. Zer moduz harremana AST-koekin?

Orokorrean ondo.

### 7. Gustatuko litzaizueke jarduera proaktiboa izatea? (zuek ere proposatzea)

Bai, zergatik ez? Horri buruz hitz egin beharko genuke.

### 8. Jarduera hauek zure bizitzarako baikorrak direla uste duzu? Denbora betetzea zuretzako baldin bada, zer aldatuko zenuke?

Ez dira negatiboak behintzat, ondo pasatzeko ondo daude.

## ELKARRIZKETA 2

### 1. Zenbat urte daukazu eta nondik zatoz?

Tolosarra naiz eta 15 urte ditut.

### 2. Nolako da zure bizitza? Zer egiten duzu egunean zehar?

Eskolara etorri, lagunekin gelditu edo arraun taldearekin entrenatu.

### 3. Zure etorkizunean zer espero duzu?

Gustuko dudana lan bat bilatzea, soldatzen adibidez.

### 4. Zer moduz zure taldekideekin? Zergatik?

Oraingo gustura.

### 5. AST-koek egiten dituzten jarduerekin zer moduz?

Ondo, dibertigarriak iruditzen zaizkit.

### 6. Zer moduz harremana AST-koekin?

Ondo, gustura.

### 7. Gustatuko litzaizueke jarduera proaktiboa izatea? zer proposatuko zenuke?

Bai, adibidez herria ezagutzeko jarduerak.

### 8. Jarduera hauek zure bizitzarako baikorrak direla uste duzu? Denbora betetzea zuretzako baldin bada, zer aldatuko zenuke?

Bai, denboran ondo pasatzeko eta egun guztian eserita ez egoteko eta ez aspertzeko balio digulako. Jendea ere ezagutzera eramaten gaitu.

# Bi ikuspuntuak: «ez nuke ezer aldatuko» eta «guztia aldatuko nuke»

Hernaniko lanbide heziketako ikasleak elkartruke desberdinetan parte hartu dute eta Erasmus+ programaren inguruan iritzi ezberdinak dituzte.

## ELKARTRUKEA

Alde batetik, Errumaniara joan ziren bi pertsonen elkarrizketa agertuko da eta bestetik, beraien etxeetan hartu dituzten 4 herrialde ezberdinetako pertsonen elkarrizketa. Elkartruke honen helburua honako hau da: Europako herrialde ezberdinek topaketa bat egitea herrialde ezberdinetan, urtean zehar egin dituzten matematikako jarduerak elkar trukatzeko, ezagutzeko eta kultura aniztasuna sustatzeko.

Errumaniara ikasleetatik Maider, Aitziber, Ander eta Ekhi joan ziren, bi irakasleekin Lorea eta Aitor. Ikasleetatik, Maider eta Ander aukeratu ditugu beraien esperientzia azaltzeko.

### Nola joan zireten?

**MAIDER:** Ni Oñatikoa naizenez, lehenengo aitak kotxean eraman zidan Donostiara. Ondoren, autobusa hartu nuen eta Santanderrera eraman ninduen. Han beste autobus bat hartu genuen aireportura eta bertan hegazkina Bucharestera. Bucharesten bi ordu itxaron ostean, beste autobus bat hartu genuen Galatira.

### Zer ekintza egin zenituzten?

**M:** Museoak bisitatu, jarduera aspergarri batzuk egin, beste jarduera dibertigarriagoak...

**ANDER:** Gehien bat turismoa egin genuen, herritik paseo bat eman, familiarekin egon, berai-ei ezagutu. Baita ere, eskolako jendearekin harremanak izan genituen eta ekintza asko burutu genituen.

### Zer motatako erlazioa izan zenuten? Zer tratu eman zizueten?

**M:** Txarra. Familiaz aldatu behar izan nintzen arazo personalak zituztelako. Lehenengo familian, gaizki pasa nuen: txakurrak harramazka egiten zidan, janaria gorroto nuen, ez zidaten kasurik egiten... Baina bigarren familiarekin ordea, erlazio hobea izan nuen eta gusturago egon nintzen.

**A:** Familiakoekin ez oso ona, asetebe egon ginen bakarrik eta ez ginen oso ondo ezagutu, gainera nik izan nuen familia ez zen oso irekia.

### Zer aldatuko zenuke? Zer ez?

**M:** Aldatu... Guztia. Baina esan-guratsuen tokia; hau da, ez zitzaidan gustatu herria orokorrean, eta pertsonen jarrera esan beharra dago ez zigutela ia kasurik egiten.

Ez nuke aldatuko adibidez, igerilekura joan ginen eguna.

**A:** Aldatu, tratua. Izan ere, nik hizkuntza ez nuen asko menderatzen eta beraiak izan zuten jarrera ere ez zen oso ona. Gustatuko litzaidake guztia ez egitea beraien modura, saiatzea behintzat ni ulertzen, nitaz gehiago kezkatzen... dena beraien modura egiten zuten eta antolaketa aldetik hobekuntzak egin ahal iziren. Ez nuke aldatuko, bertako zenbait pertsonen jarrerak izan ere, nahiz eta batzuekin deseroso egon, beste batzuk oso alaiak eta majoak ziren. Nire iritzi, hoberena Bucharest ezagutzeko izan zen beste ingurugiro bat zelako.

### Errepikatze modukoa izan zen?

**M:** Ez, baina beste herrialde bat izango balitz, pentsatuko nuke.

**A:** Bai, baina beste toki batera joateko.

### Kulturarteko desberdintasunak nabarmenak dira?

**M:** Bai, era bat. Beraien kulturaren espezia asko erabiltzeaz gain, emakume eta gizonen artean desberdintasuna nabaria da.

**A:** Bai, beraien bizimodua ezberdina zen. Adibidez, beraien gidatzeko era oso arraroa zen; hau da, ematen zuen ez zeukatela araurik, bazterbidetik gidatzen zutelako, etab. Bestetik, familien arteko erlazioa bitxia zen. Janariari erreparatu oso berezia eta espezialatua zen. Gainera, ura gasarekin edaten zuten eta gozoki gehiegi jaten zituzten, bai eta haragi zein txerri asko.

### Orokorrean nolako izan zen zure esperientzia?

**M:** Orokorrean txarra, baina esan beharra dago momentu onak ere egon zirela.

**A:** Nahiko polita, gustatzen zaidalako bidaiatzea. Baina familiarekin ordea, ez oso ondo. Orokorrean, denetarik egon zen.



Asdf

Bigarren zati honetan, 4 herrialde desberdinetako ikasleak etorri ziren: Rumania, Suedia, Austria eta Hernani. Lanbide Heziketako ikasleek beraien etxeetan hartu zituzten. Beraien etxeetan hartu zituztenak hauek izan ziren: Haritz, Xabat, Fran, Ekhi, Beñat, Ivan, Adrian, Aitor, Eva, Aitor, Jon eta Aitziber. Hauetatik 3 ikasle aukeratu ditugu 3 herrialde ezberdinetatik etorri direnen esperientzia azaltzeko. 12 ikasle hauetatik Fran, Ekhi eta Aitziber aukeratu ditugu elkarrizketa hau burutzeko.

### Zer herrialdeko ikaslea izan zenuen zure etxean?

**FRAN:** Suediako bi pertsona izan nituen etxean.

**EKHI:** Austriakoa zen nire etxean geratu zena.

**AITZIBER:** Rumanian joan nintzen eta gutxi - gora - behera ezagutzen nituen, hango pertsona bat nire etxean geratzea eskatu nuen.

### Zer ekintza egin zenituzten?

**F:** Ekintza asko egin genituen. Hoberenak batera egin genituen bazkariak izan ziren: babarrun jana eta paellada izan ziren.

**E:** Lehenengo egunean, ezagutzeko jolasak egin genituen animazioko ikasleak prestatu zituztenak, aipatu behar da, oso onak izan zirela. Gero Donostiara joan ginen, pixka bat turismoa egiteko asmoz. Kanpokoek oso ondo pasa zutela ikusi genuen, eta gustura egon zirela ohartu ginen. Nire ustez, ondo etorri zitzaigun horrelako

ekintza bat egitea. Egun batean, Guggenheim-era joan ginen eta gehien gustatutakoa azkeneko egunean egin genuen bazkaria izan zen.

**A:** Egia esan, ekintza asko egin genituen. Adibidez, Donostian turismoa, Bilbora joan ginen Guggenheim-era eta bazkari zein afariak egin genituen.

### Zer izan da hoberena? Okerrena? Zer aldatuko zenuke?

**F:** Hoberena, beraiekin arratsalde baten eklipse bat ikustea izan zen. Okerrena, Bilboko esperientzia; Hau da, bilboko ekintzak burutzen ari ginela, putzu batera erori nintzen eta honekin lotuta, zenbait kanpotarrek oso jarrera deserosoa izan zuten barre eginez etab.

Oso gaizki sentitu nintzen eta ez zitzaidan gustatu jarrerak hauek.

**E:** Guggenheim-era joan ginenean. Ez nintzen inoiz joan eta oso ondo egon zen. Okerrena, joan ginenean lehenengo egunean, ikaragarriko zaparrada erori zitzaigula. Eta aldatuko nukeena eguraldia da, baina hori ez dago gure esku.

**A:** Niretzako hoberena, gure artean izan genuen giroa izan zen. Azken finean, Hernaniko ikasleak ez ginen gure artean gehienak ezagutzen, eta oso talde polita egin genuela iruditzen zait. Okerrena, kanpoko batzuen jarrera txarra eta ezkorra izan zen eta aldatuko nukeen bakarra, batzuetan egondako organizazio falta izango zen.

### Errepikatze modukoa izan da?

**F:** Bai, asken finean hizkuntza desberdin batean komunikatu behar izan gara, kasu honetan ingelesa, eta hobekuntza ugari nabaritu ditut.

**E:** Bai, noski! Esan beharra dago, lagun desberdin asko egin dudala eta esperientzia berezi bat izan dela. Horrez gain, gauza asko ikasi ditut eta hau oso aberatsa da niretzat.


**A:** Bai, oso esperientzia polita izan zen eta berriz etorriko baziren berriz ere parte hartuko nuke azken finean beste kultura bat ezagutzeko aukera bat delako eta jende desberdina ezagutzeko gustatzen zaidalako.

### Nolako izan zen esperientzia orokorrean?


**F:** Orokorrean, esperientzia eder-rra izan da baina esan beharra dago, hobekuntzak egin daitezkeela zenbait gauza hobeto atera ahal izateko.

**E:** Ona. Lagun asko egin nituen proiektu honetan eta nituen lagunekin harreman hobea izan dut. Hau, niretzat oso berezia izan da eta oso gustura egon naizela esan behar dut.

**A:** Primerakoa. Nire iritzi, esperientzia aparta izan da, oso gustura egon naiz nire etxean egon zen pertsonarekin eta horrez gain harreman asko egin nituen. Baina, esan beharra daukat, proiektu osoko pisu guztia irakasle berri batek zuela. Honi dagokionez, lan aparta egin zuen guztia koordinatzeko eta zoriontzeko modukoa da. **K**



Asdf



Asdf



Asdf

## 3 lerroka jokuaren erronka

Hernaniko Gizarte Berrikuntzako Lanbide Heziketako ikasleak gara, Mekanizatuko erdi mailako ikasleak, idatzi hau, Adam Elordi, Jon Couso, eta Iñaki Padillak egin dugu, baina ikaskide guztien izenean idazten dugu.

Kurtso hasieran irakasleek erronka bat egitea proposatu ziguten, haurrentzako 3 lerroka jokia, klase guztia 5 kideko taldeetan banatu genuen, talde bakoitzak bere jokia diseinatu eta fabrikatu behar izan zuen.

Joko bakoitza bi oinarri ezberdinekin osatuta egon behar zen, aluminiozko batez eta PVCko beste batez, bi oinarriak beraien artean elkarri lotuta egon behar zuten eta muntaia zentzu bakarra izan behar zuen.

Jokoa sei fitxek osatuta egon behar zen, latoiezko hiru eta herdoilgaitz altzairuko beste 3, diseinua bukatu ostean plano eta prozesuekin hasi behar ginen, pieza guztiak diseinatu behar ziren fabrikatzeko beharrezkoak diren bistak ateraz eta neurriak zehaztuz.

Fabrikatzeko garaian zenbait arazo izan genituen, adibidez PVCko oinarria lantzean material biguna eta higidura errazekoa delako.

Hainbat arazo gehiago eduki genituen fitxak mekani-

zatzeko garaian, latoiezkoak gehien bat, behin mekanizatuak eta landuak zeudela, pieza oso irristakorra gelditzen zelako, horren ondorioz konponbide bat pentsatu behar genuen, «moleteatu» bat egin behar izan genuen pieza hobeto heltzeko.

Azaldutako guztia egin ondoren jokoa bukatzea lortu genuen, hasieran zailtasunak izan genituen baina denborarekin ikusi genuen pentsatutakoa baino errazagoa zela, Zailtasun horiek taldean lan hobea egitea eta gure lantzeko moduak hobetu zituen.

Ondorio bezala, oso interesgarria iruditu zaigu lan egiteko era, erronka gure eskutan utzi bait dute irakasleek, gure sormena lantzeko aukera izan dugularik.

Orain, Lizeaga Sagardotegiarentzan intxaur hauskailu automatikoa egiteko erronka dugu, 3 zilindro pneumatikorekin, intrigatuak eta motibatuak gaude honi aurre egiteko.

**Egileak:**

Adam Elordi, Jon Couso, eta Iñaki Padillak.